



KIROL FEDERAZIOEK IGAROALDIAN ZEHAR SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZA JARDUEREN EZAUGARRIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1. MAILAK

Hiru mailatan banatzen dira ikasketa-planak:

- I. maila: kirol-hastapeneko etapan arituko diren teknikariei zuzendutako prestakuntza.
- II. maila: kirol-teknifikazioko etapan arituko diren teknikariei zuzendutako prestakuntza.
- III. maila: goi-errendimenduko kirolean arituko diren teknikariei zuzendutako prestakuntza.

* Kirol modalitate/espezialitate batzuen prestakuntza-planek ematen dute aukera I mailako ikastaroen eskaintza partziala egiteko.

2. PRESTAKUNTZA-JARDUEREN EGITURA

Maila bakoitza hiru bloketan banatzen da: bloke komuna, bloke espezifiko eta praktikaldia.

- Bloke komuna:
 - Erregimen bereziko kirol-irakaskuntzak emateko baimena duen zentro batek emango du.
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, egu, bi zentro eman ditzakete igaroaldiko entrenatzaile ikastaroen bloke komunak:
 - Kirolene (Durango). 946550743
 - Harrobia Lanbide Ikastola (Bilbo). 944724366
 - Ere eman ahal izango du: beste erkidego bateko onartutako zentro batek, baldin eta autonomia-erkidego horrek onartzen duen.
 - Dagokion kirol-federazioak eta onartutako zentroak bloke komuna nola eman adostu beharko dute. Horretarako, bada, akordio bat sinatuko dute (eskabidearen 2. eranskina).
- Bloke espezifiko:
- Praktikaldia
 - Norberaren kirol-federazioan edo kirol-elkarteetan eramango da aurrera.
 - Ikasleak praktikaldia hasi ahal izango du bloke espezifiko osorik gainditu duenean eta bloke komuna amaitu edo horretan matrikulatuta dagoenean.

3. ARLOAK / MODULUAK ETA BLOKEEN ORDU-KOPURUA

	I. MAILA		II. MAILA		III. MAILA	
	MODULUAK / ARLOAK	ORDUAK	MODULUAK / ARLOAK	ORDUAK	MODULUAK / ARLOAK	ORDUAK
BLOKE KOMUNA	Kirol-portaeraren oinarriak	20	Kirol-ikaskuntzaren oinarriak	45	Goi-errendimenduaren faktore fisiologikoak	60
	Lehen sorospena	30	Kirol-entrenamenduaren oinarriak	65	Goi-errendimenduaren faktore psikosozialak	45
	Egokitutako jarduera fisikoa eta desgaitasuna	5	Egokitutako kirola eta desgaitasuna	20	Kirol-prestatzaileen prestakuntza	55
	Kirol-antolaketa	5	Generoa eta kirola	10	Goi-errendimenduari egokitutako antolakuntza eta kudeaketa	40

			Kirol-antolaketa eta -legedia	20		
	GUZTIRA	60	GUZTIRA	160	GUZTIRA	200

BLOKE ESPEZIFIKOA	Modalitate bakoitzaren prestakuntza-planaren arabera	Gutxienez: 65	Modalitate bakoitzaren prestakuntza-planaren arabera	Gutxienez: 180	Modalitate bakoitzaren prestakuntza-planaren arabera	Gutxienez: 210
--------------------------	--	---------------	--	----------------	--	----------------

PRAKTIKALDIA		150		200		200
---------------------	--	-----	--	-----	--	-----

- Bloke komunetako moduluei erregimen bereziko kirol-irakaskuntzak arautzeko BOEn argitaratutako edozein errege-dekretutan ezarritako ordu-kopurua dagokie, betiere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat (autonomia-erkidegoek euren curriculumak garatu bitartean).
- Bloke espezifikoko arloak eta euren ordu-kopurua kirol-modalitate edo -espezialitate bakoitzerako BOEn argitaratutako prestakuntza-planetan daude zehaztuta. Ikusteko modalitate/espezialitateen prestakuntza-planak, [hemen](#) sakatu.

4. MATRIKULAZIOA

- Ikasleak bloke edo area guztietan matrikulatu ahal izango dira, edo horietako batzuetan bakarrik, betiere, matrikula egiteko baldintza orokorrak eta espezifikokoak betetzen badituzte.

5. ARLO / MODULUETAKO EZAUGARRIAK

- Bloke espezifikoko arloak modu presentzian, erdi presentzian edo urruneko moduan eman ahal izango dira, betiere, dagokion prestakuntza-planetan ezarritakoarekin bat etorrituz.
 - Kirol-federazioek beti izango dute aukera arlo guztiak modu presentzian emateko.
 - Dagokion prestakuntza-planetan ezarritakoari jarraituz, kirol-federazioek aukera izango dute arlo batzuk modu erdi presentzian edo urruneko moduan emateko.
- Modu presentzian ematen diren arloak:
 - Arloa gainditu ahal izateko, ikasleek ikasgai horri dagokion ordu-kopuruaren % 80, gutxienez, bete beharko dute.
- Modu erdi presentzian ematen diren arloak:
 - Prestakuntza presentziala eta urrunekoa tartekatzen dira.
 - Arlo horri dagokion guztizko ordu-kopuruaren % 25, gutxienez, modu presentzian eman behar da.
 - Arloa gainditu ahal izateko, ikasleek ikasgai horri dagokion ordu-kopuru presentzialaren % 80, gutxienez, bete beharko dute.
- Urruneko prestakuntzaren ezaugarriak:
 - Urruneko irakaskuntza plataforma birtual baten bidez eramango da aurrera.
 - On-line jardura interaktiboak (foroak, solasguneak, wikiak eta abar) sortuko dira, pertsonen arteko aurrez aurreko harremanik ezak eragindako hutsuneak estaltze aldera.
 - Programa osatzen duten gai bakoitza garatzeko materialak eta dokumentazioa prestatuko dira.
 - Ariketa praktikoak planteatuko dira; ikasleek jasotako ezagutzak baliatu beharko dituzte euren kargura dauden kirolarien beharrak asetzeko.
 - Tutoretza-saio individualak eta kolektiboak egongo dira, ikasketei behar bezalako jarraipena egiten zaiela bermatzeko.

- Azterketak presentzialak izango dira.
- Arlo bakoitzeko azterketaren 1. deialdiak eskola-ordu baten balioa izango du; azterketen 2. deialdiek, ordea, ez dute eraginik izango prestakuntza-jardueraren guztizko ordu-kopuruan.

6. MATRIKULA EGIN AHAL IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Honako **baldintza orokor** hauek bete behar dira matrikula egiteko:

- I. mailan matrikulatzeko:
 - 16 urte.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea gaindituta izatea. Izan ezean, Hezkuntza Sailak bideratutako ordezkoko proba egin daiteke.
- II. mailan matrikulatzeko:
 - 16 urte.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea gaindituta izatea. Izan ezean, Hezkuntza Sailak bideratutako ordezkoko proba egin daiteke.
 - Kirol-modalitate horretako I. maila osorik gaindituta izatea.
- III. mailan matrikulatzeko:
 - Batxilergoa edo baliokidea gaindituta izatea. Izan ezean, Hezkuntza Sailak bideratutako ordezkoko proba egin daiteke.
 - Kirol-modalitate horretako II. maila osorik gaindituta izatea.

* Titulazio hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) Graduatu Tituluaren eta Batxilergo Tituluaren baliokide dira:

DBH	BATXILERGOA
a) Teknikari laguntzailearen titulua a) Teknikari titulua c) Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko (BUP) bigarren ikasturtea gaindituta izatea, edo, bestela, Batxilergo Bateratu Balioaniztueko bi ikasturteak amaitzeko, gehienez, bi ikasgai gainditzea falta dela egiaztatzea. d) Goi Batxilergoko titulua. e) Irakaskuntza Ertainen Erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren ikasturtea gainditu izana. f) 1963ko Planeko 3. ikasturtea gainditu izana edo irakasgai komun esperimentalen 2. ikasturtea gainditu izana Arte Aplikatu eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetan. g) Industriako ofizial titulua. h) Ondorio akademikoetarako, goikoen parekoak diren beste ikasketa batzuk gainditurik izatea. k) Batxilergoko tituluaren baliokide diren egoera eta titulu guztiak (taularen eskuineko aldean daude zehaztuta).	a) Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitatearen bigarren ikasturtea gainditurik izatea. b) Teknikari espezialista titulua edo goi teknikari titulua. g) Industriako maisu titulua. d) Goi Batxilergoko titulua, Unibertsitate Bideratzeko Ikasturtea (UBI) edo Unibertsitate Aurreko Ikasturtea gaindituta. e) Hogeita bost urtetik gorakoek unibertsitatean sartzeko duten proba gainditu izana. f) Ziklo luzeko edo laburreko edozein unibertsitate titulu. g) Arestian aipatutako ikasketen baliokide diren beste edozein ikasketa gainditu izana.

* *Eskola Graduatu ez da DBHko tituluaren baliokide.*

* DBHren edo Batxilergoaren ordezkoko diren heldutasun-probak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtean behin egiten duen proba da. Argibide gehiagorako, klikatu [hemen](#).

Honako **baldintza espezifiko** hauek bete behar dira matrikula egiteko:

- **Izaera espezifikoko proba bat gainditzea edo** kirol-modalitate edo -espezialitate bakoitzari dagozkion prestakuntza-planean ezarritako **kirol-merezimenduak egiaztatzea**.

* Baldintza espezifikoek buruzko oharrak:

- Aipatutako proba espezifikoak Espainiako lurralde osoan izango du balioa, proba gainditu eta hurrengo 18 hilabeteetan zehar.

- Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat, goi mailako edo goi errendimenduko kirolari direla egiaztatzen dutenek ez dituzte dagokion kirol-modalitate edo -espezialitaterako baldintza espezifikoak bete behar.
- Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, sarrera-probetako epaimahaiari aholkularitza emateko mekanismoaren bat ezarri ahal izango da, desgaitasun-mailak prestakuntza probesteko, dagokion mailari lotutako gaitasunak eskuratzeko eta lanbidean behar bezala jarduteko aukerarik ematen ote duen aztertze.

7. BLOKE ESPEZIFIKOKO IRAKASLEEK ETA SARRERA-PROBA ESPEZIFIKOETAKO EPAIMAHAIKIDEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Lizentziadunak, ingeniariak, arkitektoak, goi mailako hezkuntzan graduatuak edo emango duten ikasgaiarekin harremana duen titulu baliokideren bat dutenak.
- Dagokion kirol-modalitate edo -espezialitatean federazio-prestakuntza gorena duten entrenatzaileak, betiere, 1999ko uztailaren 5eko Agindua indarrean jarri aurretik jaso badute prestakuntza.
- Igaroaldian zehar III. mailako entrenatzaile direnak.
- Arestian aipatutakorik egon ezean, kirol-federazioek egiaztatutako adituak.

8. PRAKTIKALDIKO TUTOREK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Praktikaldian dagoen ikasleak baino kirol-prestakuntza (ofiziala edo federaziokoa) altuagoa —maila bat altuagoa, gutxienez— duten entrenatzaileak, modalitate edo espezialitate berberaz ari garela.
- Arestian aipatutakorik egon ezean, kirol-federazioek egiaztatutako adituak.

9. PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DEIALDIA

- Deialdiak jendaurrean jarri beharko dira, eta erakunde antolatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen datu guztiez gain, honako alderdi hauek ere zehaztu beharko dituzte: plaza-kopurua, izangaiak hautatzeko irizpideak; ikasleak ordaindu beharreko guztizko prezioa, prestakuntza-plana (Estatuko Aldizkari Ofizialean zer egunetan argitaratu den adierazita) eta ikasgaien ordu-kopurua. Hala dagokionean, ikasleei kostu gehigarriak eragiten dizkieten kontzeptu guztiak ere zehaztuko dira.

10. BAIMENTZEA

- Prestakuntza-jarduerak Kirolaren Euskal Eskolaren (Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza) baimena behar du.
- Baimena eskuratzeko eskabidearen kopia bana, behar bezala beteta, aurkeztu beharko da Kirolaren Euskal Eskolan, bata DIN-A4 tamainako paperean eta bestea formatu elektronikoan (.doc edo analogoa).
- Kopia horiei dokumentazio hau erantsi beharko zaie:
 - Federazioaren Identifikazio Fiskaleko Kodea (ikastaro baterako baimena eskatzen den lehen aldia izatekotan).
 - Ikastaroaren deialdia.
 - Kirol-prestakuntzako jarduera sustatzen duen erakundeak eta bloke komuna emateko baimena duen zentroak sinatutako akordioa (2. eranskina).
 - Prestakuntza-jarduera emateko instalazioak erabiltzeko baimena egiaztatzen duen agiria (3. eranskina).
 - Datuak benetakoak direla dioen adierazpena (4. eranskina).

- Irakasleen, tutoreen eta sarrera-probetako epaimahaikideen nortasun-agiriaren zenbakia eta kirol-alorrean duten titulazio akademikoa ziurtatzen duten agiriak (ikastaro batean parte hartzen duten lehendabiziko aldia izanez gero).
- Prestakuntza-jarduera hasi baino lau hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztu behar da dokumentazioa, edo, sarrera-proba espezifikoak egonez gero, proba horiek hasi baino lau hilabete lehenago, gutxienez.
- Agiriaren bat faltako balitz, interesdunari esango zaio hamar eguneko epea duela falta diren agiriak aurkezteko, eta hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.

11. IKUSKAPENA

- Kirolaren Euskal Eskolari dagokio prestakuntza-jardueraren jarraipena egitea, emandako baimenaren arabera eta abenduaren 7ko EDU/3186/2010 Aginduan ezarritakoaren arabera garatzen ari ote den ikusteko.

12. EBALUAZIO-AGIRIAK ETA -IRIZPIDEAK

- Kirol-federazioek, prestakuntza-aldi osoa amaitutakoan (praktikak barne), honako ebaluazio-agiri hauek egin beharko dituzte, eta agiri horien zигilatutako kopiak bidali Kirolaren Euskal Eskolari:
 - Izaera espezifikoaren proben akta.
 - Ikaslea GAI edo EZ GAI gisa kalifikatuko da (sarrera-proba egotekotan) edo egiaztatutako merituak jarriko dira (merezimenduak eskatzekotan).
 - Arloetako eta praktikaldiko aktak.
 - Dagokion kirol-federazioak bloke espezifikoaren arloetako eta praktikaldiko aktak bete beharko ditu.
 - Bloke komunak ematen duen zentro baimenduak bloke komuneko arloetako aktak bete beharko ditu.
 - Bloke komuneko eta bloke espezifikoaren aktak:
 - 1 eta 10 puntu arteko kalifikazioak jarriko dira, hamarrekorik gabe. 5 puntu edo gehiago jaso dituzten kalifikazioak positibotzat edo gaitututatzat joko dira.
 - Arlo batean matrikulatutako ikasleak ikasturteko bi deialdi izateko eskubidea dauka; lehenengoa “arrunta” izango da, eta bigarrena, berriz, “apartekoa”.
 - Gutxienez 30 eguneko eta gehienez hiru hileko epean egingo da aparteko deialdia, deialdi arrunteko azkeneko ebaluazio-saioa egin eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. *Salbuespena: natura-inguruetako kirol-modalitateak epe horiek alda lituzkete.
 - Praktikaldiko akta:
 - Ikaslea GAI edo EZ GAI gisa kalifikatuko da.
 - Praktikaldiko ziurtagiria.
 - Praktikaldiko ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da praktikaldia egin eta gaitututatzat dela. Tutoreak edo praktikaldiaz arduratzen den erakundeak sinatuko du.
 - Ikasleak, gehienez, 12 hilabeteko epea izango du praktikaldiko ziurtagiria aurkezteko, bloke espezifikoaren arloetako notak argitaratzen diren unetik zenbatzen hasita.
 - Bloke komuneko ziurtagiri akademikoa.
 - Ikaslearen espedientearen agertutako dira:
 - Ikaslearen ebaluazio-prozesuari buruzko informazio guztia.
 - Prestakuntza-planari buruzko datu guztiak.
 - Diploman agertutako dira:
 - Aurrealdean:
 - Diploma eman duen entitatearen titulartasuna.
 - Interesdunaren izen-abizenak, nortasun-agiriaren zenbakia, jaiotze-data, jaioterria eta sinadura.

- Lortutako ziurtagiriaren izena eta maila.
- Gaingidutako prestakuntza baimentzen duten administrazio-arauekiko erreferentzia.
- Prestakuntza sustatu duen erakundearen logotipoa eta zigilua, eta ordezkariaren sinadura.
- Ziurtagiria zer egunetan egin den.
- Atzealdean:
 - Eusko Jaurlaritzaren aginpidea, erregistro-datuei dagozkien erreferentziak, sinadurak eta zigiluak agerian dituela.
 - Gaingidutako prestakuntzari dagokion ikasketa-plana.
- Kirol-federazioa arduratuko da diplomen **erregistroaz**.
 - Zenbaketa.
 - Erregistroaren liburua / artxibo digitala.
 - Diploma jaso izanaren ziurtagiria / sinadura
- Jarduerak sustatu dituzten kirol-federazioek gordeko dituzte jatorrizko ebaluazio-agiriak.
- Kirol-federazioek ikasleen espedienteak eta diplomak egin ahal izango dituzte, edo bestela Kirolaren Euskal Eskolari eskatu lan hori egin dezala.

13. AURRETIK EGINDAKO FEDERAZIO-PRESTAKUNTZAK EGIAZTATUZ SARTZEA

- 2002ko abenduaren 31a baino lehenago hasitako federazio-prestakuntzak (ECD/3310/2002 Agindua indarrean sartu baino lehenagokoak):
 - II. mailan sartzeko:
 - Bete behar dira II. maila egiteko eskatzen diren baldintza orokorrak (adina eta baldintza akademikoak) eta espezifikak (sarrera-proba edota meritua).
 - Egiaztatu behar da federazio-prestakuntzaren I. maila edo baliokidea gaingiduta izatea.
 - Kirol hastapeneko entrenatzaile-lizentzia, (eskola- zein federazio-lizentzia), eduki izana, gutxienez urtebetez. Eskarmentu hori izan ezean, gaingiduta izatea kirol eta maila horren inguruko *talde-proba*.
 - III. mailan sartzeko:
 - Bete behar dira III. maila egiteko eskatzen diren baldintza orokorrak (adina eta baldintza akademikoak) eta espezifikak (sarrera-proba edota meritua).
 - Egiaztatu behar da federazio-prestakuntzaren II. maila edo baliokidea gaingiduta izatea.
 - Kirol-teknifikazio etapako entrenatzaile-lizentzia, –federazio-lizentzia–, eduki izana, gutxienez bi urtez. Eskarmentu hori izan ezean, gaingiduta izatea kirol eta maila horren inguruko *talde-proba*.
- 2003ko urtarrilaren 1 eta 2007ko azaroaren 9 arteko epealdian egindako/hasitako federazio-prestakuntzak, **Kirol Kontseilu Gorenak onartutakoak** (ECD/3310/2002 Agindua eta 1363/2007 Dekretua indarrean sartzearen arteko epealdiko prestakuntzak):
 - II. mailan sartzeko:
 - Bete behar dira II. maila egiteko eskatzen diren baldintza orokorrak (adina eta baldintza akademikoak) eta espezifikak (sarrera-proba edota meritua).
 - Egiaztatu behar da federazio-prestakuntzaren I. maila edo baliokidea gaingiduta izatea.
 - 150 orduko praktikaldia eginda izatea.
 - Gaingiduta izatea kirol horretako I mailako edukien inguruko *talde-proba*.
 - III mailan sartzeko:

- Bete behar dira III. maila egiteko eskatzen diren baldintza orokorrak (adina eta baldintza akademikoak) eta espezifikokoak (sarrera-proba edota meritukoak).
- Egiaztatu behar da federazio-prestakuntzaren II. maila edo baliokidea gaindituta izatea.
- 200 orduko praktikaldia eginda izatea.
- Gaindituta izatea kirol horretako II. mailako edukien inguruko *talde-proba*.

14. ARLOAK KONPENTSATZEA (BALIOZKOTZEA) MEREZIMENDUEN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA OFIZIALEN BIDEZ

- Ikasleek, beste ikaskuntza ofizialak gaindituta izateagatik, bloke komuneko zein espezifikoko arlo-konpentsazioak (baliozkotzeak) jaso ditzakete, baldin eta ikasitako edukiak eta konpentsatu nahi den edo diren arloak bat badatoz eta aurreko ikaskuntzetako ordu-kopurua berdina edo handiagoa bada.
 - Titulazio ofizialak
 - Egiaztatzeagatik kirol eta jarduera fisikoetako familiaren irakaskuntzak.
 - Egiaztatzeagatik eduki berberak edo antzekoak jorratzen dituzten beste irakaskuntza ofizialak.
 - ECD/3310/2002 Aginduan oinarritu diren prestakuntzak, bloke espezifikoko arloak soilik.
- Era berean, uztailaren 13ko 971/2007 Dekretuan oinarritutako goi mailako edo goi errendimenduko kirolariek ere eskura ditzakete arlo-konpentsazioak, hain zuzen ere bere kirol-modalitateko teknika, taktika eta araudiko edukiekin zerikusia duten I., II. eta III. mailako bloke espezifikoko arloetakoak.
- Bloke komuneko arloak baliozkotzeko eskaerak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriori eskatu beharko zaizkio (batzuetan bloke hori emango duen zentro baimenduaren bitartez).
- Bloke espezifikoko arloak baliozkotzeko eskaerak Kirolaren Euskal Eskolari bidali behar zaizkio.

15. PRESTAKUNTZAREN GEROAGOKO AITORTZA

- Kirol-modalitate bateko ikasketak, dagokion errege-dekretuaren bidez, hezkuntza-sisteman txertatzen direnean, igaroaldian zehar egindako modalitate horretako prestakuntzen aitortza lortu ahal izango dute ikasleek. Aitortza Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emango du (ikasketa-moduluen prestakuntza-korrespondentzia; baliokidetasun profesionala eta homologazioa). Horretarako, bada, prozesu honi jarraitu beharko zaio:
 1. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak Espainiako Kirol Kontseilu Gorenari eskatuko dio igaroaldian zehar dagokion kirol-modalitatean eman diren prestakuntzak aitortzea.
 2. Kirol Kontseilu Gorenak prestakuntzak aitortzea. BOEn argitaratzea.
 3. Ikasleei aitortza jasotzeko aukera dagoela jakinarazteko prozesua (kirol-federazioen bidez).
 4. Ikasleek eskaera indibiduala egitea. Argibide gehiago [hemen](#).
 5. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ebazpena ematea eta interesdunari jakinaraztea.

IGAROALDIA (KIROL-SISTEMA)	ERREGIMEN BEREZIKO KIROL- IRAKASKUNTZAK (HEZKUNTZA- SISTEMA)	AITORTZAREN EFEKTUAK
I. mailako diploma	I. mailako ziurtagiria edo maila ertaineko hasierako zikloa	- Moduluen prestakuntza-korrespondentzia - Baliokidetasun profesionala - I. mailako ziurtagiriaren edo maila ertaineko hasierako zikloaren efektu berberak
II. mailako diploma	Kirol-teknikariaren titulua	- Moduluen prestakuntza-korrespondentzia - Baliokidetasun profesionala - Tituluaren homologazioa
III. mailako diploma	Goi mailako kirol-teknikariaren titulua	- Moduluen prestakuntza-korrespondentzia - Baliokidetasun profesionala - Tituluaren homologazioa

